



ONE CLUB WOMAN AWARD

Zietz

17 urtez jokatu zuen
1.FCC Turbine Potsdam-en





Jennifer Zietzek (Rostock, Brandeburgo, Alemania, 1983ko irailaren 14a) 2022ko One Club Woman saria jasoko du, klub bakar batean egindako ibilbide profesional bikaina aintzat hartuta, 1. FCC Turbine Potsdam-en, alegia. Zietz erdilari ohia (332 partida eta 97 gol) talde alemaniarrean urte gehien eman dituen jokalaria da. Sei urte zituela, bere jaioterriko BSG Post Rostocken hasi zen lehen urratsak ematen, eta 1998an Potsdamera joan zen. Behin Brandeburgo estatu federaleko hiriburura lekualdatuta, Zietzek klubarekiko atxikimendua erakutsi zuen 17 denboralditan zehar etengabe jokatu eta gero. “Nire bizitzaren erdia baino gehiago Potsdamen eman dut eta beti etxean bezala sentitzen naiz”, azaldu zuen jokalaria ohiak.





2007ko apirilaren 1ean, taldeko kapitainaren ardura hartu zuen, Ariane Hingst bere aurrekoa Suediako Lehen Mailako Djurgården Damfotboll taldera joan ondoren. Aurretik, nazioarteko lehen partida jokatu zuen Alemaniako selekzioarekin 2005eko urtarrilaren 28an, Australiaren aurka (15 aldiz nazioartean ibili zen). 21 urtez azpiko selekzioarekin 2006ko uztailean Kopa Nordikoa irabazi zuen. 2010eko martxoaren 1ean sartu zuen bere lehen gol internazionala, Txinaren aurka Algarve Kopan, luzapenean. Selekzioarekin, Zietzek Europako Txapelketa irabazi zuen 2009an, baina ez zuen minutu bakar bat ere jokatu txapelketan.

2012ko maiatzean izan zuen unerik txarrena; izan ere, lesio larria jasan zuen eskuineko belaunean. Ahalegin handia egin zuen berriz jokatzeko, eta osatu ondoren, lehen taldera itzuli aurretik, indarra eta konfiantza hartzen joan zen 1.FCC Turbine Potsdam II eskumendeko taldean, 2013an sei partida jokatuta.



Hala ere, 2014/15 denboraldiaren amaieran, Zietzek 31 urterekin eman zion amaiera bere kirol-ibilbideari, eta klubak beste denboraldi baterako proposatu zion berritze-eskaintzari uko egin zion. “Azken bi urteak, belauneko ebakuntzaren ondoren, ez ziren errazak izan”, esan zuen.

Jennifer Zietzek eta Turbinek klubean mailan irabazi beharreko guztia lortu dute: 2 Txapeldunen Liga (2005, 2010), 6 Bundesliga (2003/04, 2005/06, 2008/09, 2009/10, 2010/11, 2011/12), 3 Pokal/kopa alemaniar (2004, 2005, 2006) eta, gainera, jokalaria ohiak Eurokopa bat eskuratu zuen Alemaniarekin (2009). 2016/17 denboraldian, Zietz 1. FFC Turbine Potsdamera itzuli zen Matthias Rudolphentzat entrenatzaile laguntzaile lanetan.





Jennifer 'Jenny' Zietz

Rostock, Alemania, 1983ko irailaren 14a (38 urte)

Kluba: 1. FFC Turbine (1998-2015)

Nazioartean: Alemaniako selekzioa (15 partida, gol bat)

Jokatuako partidak (golak): 332 (97)

UEFA Champions League: 23 (1)

Bundesliga: 276 (91)

Pokal: 20 (4)

2. Bundesliga Nord: 6 (0)

Bundesliga Cup: 7 (1)

Lorpenak:

UEFA Champions League: 2 (2005, 2010)

Bundesliga: 6 (2003/04, 05/06, 08/09, 09/10, 10/11, 11/12)

DFB-Pokal (kopa alemaniarra): 3 (2004, 2005, 2006)

DFB-Hallenpokal (areto-futbola): 6 (2004, 05, 08, 09, 10, 14)

Eurokopa: 1 (2009)

